



## Ertzillako Garaia (Iurreta)

Garaiak Bizkaiko ekialdeko haranetako paisian ohiko osagaia izan ziren baita antzineko baserrien ohiko osagarria. Uste dute milaka garai egon zitezkeela, nahiz eta gaur egun Bizkaiko lurralde osoan berrogei garairen hondarrak baino ez diren gordetzen. Durangaldea hondakin gehien dauden Euskal Herriko eskualdea da eta Ertzilla Haundia baserriko garaia, 1987 urtean mendean guztiz eraberritua, haien guztien ordezkari onena da.

Iberiar Penintsulako iparraldean lur-mailaren gainean altxatutako bihitegi hauen jatorria behintzat erromatarren garaioak dira eta, Bizkaian hain zuzen, Erdi Aroko tesmonio ugari erakusten duten baserri berri bat eraikitzean zegokion garaia ere eraikitzen zela.

Hala ere, Bizkaian dauden garai guztiak XVI. mendean armatu ziren, prosperitate ekonomiko handia eta lurralde lantzean lasaitasun zegoen garaian, fruta eta gari uzteei esker ia herriko nekazari guztiek baserriak zaharberritu ahal izan zituzten.

Harrizko lau pilareen gainean altxatutako bihitegi hauetan, karrakariengandik eta hezetasunetik babestua, urte osorako familiaren elikagaiak hainbat konpartimentutan gordetzen ziren. Garia, azokan erositako edo bere soroetan lortua, bere elikaduraren oinarria zen, eta hori gordetzeko erabiltzen ziren aletegi edo kutxa hermetikoak zeinetan bereizten zen eriteko garaia eta jateko ogi bihurtuzena. Babak, artatxikia, sagarrak, gaztainak, intxaurrak eta haragi/arrain gazituko upeltxoak zoruko leku hutsean, erdiko apaletan eta oholezko manperez banatutako edukiontzietan jartzen ziren. Gako eta kordelen bidez habe altuetaik haragia eta arrain siku, lukainak eta hainbat txerriki, beraz garaiko haize sikuari aroma eta usain nahasketa bereiztezina zerion.

Elikagai horietako asko kontserbatu zitezkeen baserriaren barruan gordeta baina garaia ospe sozialaren ikurra ere bazen. Zenbat eta handiago, auzokoen begien aurrean apainduago eta luxu handiagoz agertu hainbat eta aberatsagoa zirudien nekazarien familiak.

XVII. mendetik aurrera Euskal Herriko soruetan Ameriketako artoa eriteen hasi ziren eta asko zabaldu zen eta gari-uztak gutxitu ziren, bakarrik eriteen zen atxearen alogera eta elizaren zergak ordaintzeko. Artoak sikatzeko behar zuen prozesua ez zen gariarena bezalako eta bizkaitar garaia ez ziren prestatu hori egiteko. Zitu berria baserrietako goiko solairuan gordetzen zen eta garaia gero eta gutxiago erabiltzen zen.

Garai asko bota ziren eta beste batzuk erori ziren konponketa faltagatik. Zutik iraundu zutenek bere funtzioak eta jatorrizko egitura galdu zituzten: pilareen arteko baoak itxi ziren, barruko atalak kendu ziren eta aurreko fatxadak itxi ziren, horrela lastategi, artotegi, egurtegi edo untxitegi gisa erabili ahal ziren.

Ertzilla baserriko garaia XVI. mendearen bigarren erdialdean eraiki zuten, eta antzeko degradazio prozesua izan zuen XIX. Mendearen hasieran, aurreko bipilareak eta kanpoaldeko bildukina eta barrualdeko trenkadak osatzen zuten ohol asko galdu zituen. Hala ere, jazenetan zeuden ohol zaharren muntaiaren aztarnei esker jatorrizko itxura eta egitura zaila berreraiki ahal izan dira.

Irudi apaleko eraikina da, baina muntai konplexua dauka, pieza guztiak oso ondo uztartzen dira metalezko iltzerik gabe, buruhausgarri ikaragarri batean bezala. Aritz-egurrezko egitura hareharrizko lau pilare tronkopiramidaleen gainean dago jazota eta horien gainean rodezno izeneko harrizko diskoak daude. Disko horien gainean habarik handienak jarrita daude eta horiek habexka muntatuen parrila baten oinarria dira, habexka horietan zoruko oholtzako oholak eta itxeko hormak eta barrualdea berreiztekoak osatzen dituzten piezak ahaokatzen dira. Asturiaseko garaia ez bezala, bi isurialdeko estalkia jartzen zaie eta bertan teiletegaleko hegalkinaren azpian ganbara txiki bat dago.

Garaian sartzeko azken maila falta duen eskailera bat dago, animaliak igo ez daitezkeen. Aurrekoaldeko balkoi txikiak Garaia dituen hiru zatiak banatzeko balio du: alboko zati estu bi eta erdiko zati handiagoa eta bertan bukaeran bialetegi handi ditu. Zati bakoitzak bere atea eta zerraila dauka. Horma hermetikoak ohol mihizatuz muntatzen dira, zeineta pieza lauk eta erronboide itxurakoak tartekatzen baitira, eta zutabe bertikalak dentikulodun taila txikiez apaintzen dira, garaiko heri-arotziaren arabera.

**Testua:** Alberto Santana.



### Ertzillako Garaia

Iurreta. (*Gaztañatza auzoan*).

#### Nola heldu:

Amorebieta-Durango errepide nagusitik Gaztañatza auzoak zaharbidetara hartu behar da. Garaia bidegurutzetik 200 metrora dago, A-8 autobidetik igaro ondoren.

#### Inguruko beste leku interesgarri batzuk:

(*Iurreta*)

- San Migel eliza.
- Goiuriako Andramari basiliza.
- Olabe Nagusia baserria.
- Arandiako zubia eta burdinola.